

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

**Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko martxoaren 15ean hartutako erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez onartu zen Laudioko merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzu-enpresetan euskarazko errotuluak sustatzeko diru-laguntza deialdia 2019. urterako**

BDNS (Identif.): 452968

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, alegia, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Laudio udalerrian egoitza edo ordezkaritza duten merkatarari, ostalari eta zerbitzu enpresa txikiak betiere merkatarari, ostalari eta zerbitzu enpresa txikientzako udalaren euskara planean partaide badira. Pertsona fisikoak zein juridikoak izan ahal izango dira.

#### **Bigarrena. Helburua**

Deialdi honen xedea da Laudion dauden merkatarari, ostalari eta zerbitzu enpresa txikiei diru-laguntzak ematea euren errotulazio-gai berrietan euskara txertatzeagatik.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zituen 2017ko ekainaren 23an. ALHAOn argitaratu dira 2017ko uztailaren 3an.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdiaren diru-kopurua 2.000,00 euro da.

#### **Bosgarrena. Eskerak aurkezteko epea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 2019ko azaroaren 8ra arte.

Laudio, 2019ko martxoaren 15a

*Alkate-udalburua*

*JON IÑAKI URKIXO ORUETA*